



ESTADÍSTIKA:

GIZARTE EKONOMIA 2016 eta 2017 ko AURRERAPENA

AURKEZPENA

Dokumentu honek, bere lehen atalean, 2016 ekitaldiaren Gizarte Ekonomiaren bi urtez behingo Estatistikan lortutako emaitza nagusiak sintetizatzen ditu, baita 2017. urteari buruzko zifren aurrerapen bat ere.

Bigarren atalean, egindako analisia Estatistika Eranskin moduan zehazten da. Eranskin honek, 2016. Urtean analizatutako parametroen egoera jasotzen du. Baita ere, 2014. ekitaldiari dagokion eboluzio konparatiboa, baina baita 1994. urtean hasi zen estatistika ariketaren hasieraraino atzera egiten duen analisia.

Emaitza Txostena (I. Atala), Gizarte Ekonomiaren Forma Klasikoen (GEFK): Sozietate Kooperatiboa, Erantzukizun Mugatuko Lan-Sozietateak, eta Lan-Sozietate Anonimoak; eta Gizarte Ekonomiako Forma Berrien artean (GEFB): Erakundeak, Onura publikoko erakundeak, Laneratzeko Enpresak, Enplegu zentro bereziak, Eraldaketa Nekazaritza sozietateak, Arrantzaile Kofradiak eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak; bizi izandako errealitatea kokatzen duen hamar ataletan egituratzen da.

Egungo euskal gizarte ekonomia bereiziz eta deskribatuz, ekonomia eta enpresa errealitate desberdinak ikuskatzen dituzten hamar atal aurkezten dira. Analisiak, lehen zatian, euskal Gizarte Ekonomiak osatzen duen enpresa ehunak sortutako BEGa, lortutako emaitzak, fakturazio zifrak edo enplegua moduko parametroen bilakaera eta egoerari lotutako lehen begirada sozioekonomiko hutsa egiten da.

Analisi kuantitatibo eta ebolutibo hau, errealitate berriei lotutako beste ikuspegi batzuetatik egiten da; horien artean, Berdintasun neurrien integrazioa enpresetan, enpresen arteko kolaborazio harremanen garrantzia, berrikuntza, edo gaur egun gizarte ekonomiak euskal gizartean duen rola balarazioa.

Horrela, zehazki, honako hamar atal hauek analisi eremu desberdinetara lotzen dira:

- **1.- Gizarte ekonomiaren magnitude sozioekonomiko nagusien egoera eta bilakaera 2014 – 2016 (GEFK):** txosteneko atalik zabalena da, eta sektore ikuspuntutik, lurralde ikuspuntutik, forma juridikoaren ikuspuntutik, kontratuzko harreman ikuspuntutik, eta enpresa tamaina ikuspuntutik enpleguaren bilakaeraren analisia aurkezten du. Fakturazioa, BEGa, esportazioen maila eta norakoa, inbertsorearen esfortzua edo enpresek izandako emaitza ekonomikoak bezalako ekonomia parametro desberdinen bilakaeraren analisia ere lantzen da.

- **2.- Zifra sozioekonomiko handien aurrerapena 2017 (GEFK):** atal honek gizarte ekonomiaren enpresen fakturazio eta enplegu terminotan, 2017 ekitaldian gizarte ekonomian itxarondako bilakaera aurkezten du, 2016. urtearekin konparatuz.
- **3.- Gizarte ekonomiako enpresen aldetik Gizarte ekonomiaren (GEFK) kudeaketa organoetan barruko partaidetzaren, erakundeen lanaren eta kanpoko hautemate sozialaren balioespena:** euskal gizartearen artean gizarte ekonomiaren rolaurrean enpresek duten iritzi eta balioespena edo eremu instituzionaletik bultzatutako ikuspen mailari dagokionez enpresa hauek duten balioespenak azaltzen ditu.
- **4.- Gizarte ekonomian genero berdintasuna eta kontziliazioa (GEFK):** 2016. edizioan sartu den kapitulu berria da, okupatutako euskal biztanleriaren artean gizarte ekonomian emakumezkoen enpleguaren ordezkartzaren pisuaren analisisian datza. Aldi berean, enpresetan familia eta bizitza laboralaren arteko kontziliaziora bideratutako neurri zehatz eta Berdintasun Planen txertaketa maila aztertzen ditu.
- **5.- Talentuaren kudeaketa enpresetan (GEFK):** erakundeetan, egungo eta gertuko etorkizunean, giza talentuaren atxikipena eta talentuari dagokionez dagoen kezka aztertzen ditu.
- **6.- Enpresa kudeaketa tresnak (GEFK),** Aurreko edizioen lerroan, enpresen tamainaren arabera antolakuntza Araudi eta Planen txertaketa, maila azaltzen ditu. Atal honek, hurrengo hiru elementuak aztertzen ditu lehenengo aldiz: Kode Etikoak, Erantzukizun Sozial korporatiboen gaineko txostenak eta Berdintasun Planak.
- **7.- Enpresa arteko lankidetzak (GEFK),** atal honek, momentura arte gauzatutako enpresen arteko aliantza eta harremanen tipologia nagusiak analizatzen ditu, eta baita, enpresek emandako garrantzi maila eta epe ertainean bere garapen joera.
- **8.- Krisi aurreko estrategiak (GEFK),** gizarte ekonomiako enpresek, azken bi urteetan atzera eginez, 2014 eta 2012 -nahiz eta modu laburragoan- 2008ko krisiari aurre egiteko neurri mota eta hauen aplikazio intentsitatea aztertzen ditu.
- **9.- Berrikuntzaren ekintza eta inpaktua (GEFK),** berrikuntza jarduerak gauzatzen dituzten enpresa taldearen pisua kokatzen du, EAEan berrikuntza lantzen duten enpresekin konparatuz, eta baita berrikuntzak enpresa hauen enpleguaren gainean duen inpaktua ere.



- **10.- Gizarte Ekonomiako Forma Berriak 2016 (GEFB): Emaidza Txostenaren azken atala,** Erakundeak, Onura publikoko erakundeak, Laneratzeko Enpresak, Enplegu zentro bereziak, Eraldaketa Nekazaritza sozietateak, Arrantzale Kofradiak eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak osatzen duten hirugarren sektore honen zifra sozioekonomiko nagusiak aurkezten ditu. Analisia, GEFB eta GEFKen agregatutako parametro sozioekonomiko nagusien aurkezpenarekin amaitzen da –enplegua, fakturazioa, soldata masa eta BEGa-.



I. ATALA: EMAITZA NAGUSIAK


I. GIZARTE EKONOMIAREN MAGNITUDE SOZIOEKONOMIKO NAGUSIEN BILAKAERA ETA EGOERA 2014 – 2016 (GEFK)

Euskal Gizarte Ekonomiaren enplegua, lehen aldiz hazi da krisia hasi zenetik; 2014 – 2016 bitartean %4,5eko hazkundea, hain zuzen, euskal ekonomiak bere osotasunean sortutako bilakaera (%2,6) baino handiagoa.

Zortzi urtez enpleguaren galera jarraia bizi ostean, euskal gizarte ekonomiak 2008an hasi zen beheranzkoa joerarekin apurtzea lortu du, 2014 eta 2016 bitartean izandako %4,5eko hazkundearekin. Aldi horretan sortutako okupatutako euskal biztanleriaren errekuperazioa gaingitzen duen hazkundea, %2,6koa.

Hala ere, 2008-2016 krisi aldi luzeak, gizarte Ekonomiaren enpleguaren %14ko galera suposatu du. Aitzitik, okupatutako euskal biztanlerian erregistratutako inboluzio malkartsuagoa izan da, aldi honetan %8,4a galtzen duena.

GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUAREN BILAKAERA 1994-2016




Horrela, zifra absolutuetan, gizarte ekonomia **2016an urteko 57.018 enpleguko zifra orokorrean kokatzen da, Euskadiko okupatutako biztanleriaren %6,3a irudikatzen duelarik.**

Aurreko urteetan, euskal ekonomiarekin harremanetan gizarte ekonomian bizi izandako enplegu zifren konparaziozko bilakaera txarrak, 2012. urtean eta era berezian 2014an, euskal ekonomiaren Gizarte Ekonomiako enpleguaren pisu erlatiboaren galera eragin zuen. Galera hau, 2012 eta 2014 urte hauentzako, enpleguaren partaidetza ratioetan kuantifikatzen zen, %6,2 eta %6,1 hurrenez hurren. Ratio hauek, atzera begirada zabalago bat eginez gero, orain dela bi hamarkadan erregistratutako mailetara atzera egin dute.

Positiboan, 2014-2016 biurteko honetan, enpleguaren errekupeazioak, Gizarte Ekonomiak sortutako enpleguaren irudikapen maila hobetzea baimendu du, %6,3, 2008 eta 2010 urteetan erregistratutako mailetan kokatuz. Ratio hau, hala ere, 2004an markatutako %6,6tik urrun geratzen da, eta baita 2002an lortutako irudikapen maila altuenetik ere (%6,8).

GIZARTE EKONOMIAREN ENPLEGUAK EAEko EKONOMIAN DUEN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA 1994-2016 (% EAEko enpleguen kopuru osoarekiko).



Gizarte ekonomian enpleguaren errekupeazioa EAEko eskualde eta sektoreetara zabaltu arren, bere portaerak, bilakaera testuinguru eta intentsitateak, ikuspuntu desberdinetatik egingo diren jarraian garatutako analisi espezifikoak merezi du:

- a) Sektorekako irakurketa
- b) Eskualde eta lurralde irakurketa
- c) Forma juridikoen arabeko irakurketa
- d) Kontratu motaren arabeko irakurketa
- e) Enpresa tamainaren arabeko irakurketa

a) SEKTOREKAKO IRAKURKETA


Zifra absolutuetan, zerbitzu sektoreak 2016an 30.000 enplegu urtekotu inguru lortu zituen; hala ere, industria da (25.240 enplegu 2016an) enplegu sorkuntza terminotan dinamismo gehien duen sektorea (+%6,0).

Izan ere, 2014- 2016 biurtekoan, maila desberdinetan izan arren, sektore guztiek hazkundera “batu” dute beraien enplegu mailatan: Nekazaritza (+%8,8), Industria (+%6,0), Zerbitzuak (+%3,3) eta Eraikuntza (+%1,25).

GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA 2014-2016
(zifra absolutuak eta % bertikalak)

	2014		2016	
	Z.a.	% ber.	Z.a.	% ber.
Lehen sektorea	171	0,3	186	0,3
Industria	23.807	43,6	25.240	44,3
Eraikuntza	1.599	2,9	1.619	2,8
Zerbitzuak	29.005	53,2	29.973	52,6
GUZTIRA	54.582	100,0	57.018	100,0

GIZARTE EKONOMIAREN INDUSTRIA ENPLEGUAREN ETA HIRUGARREN SEKTOREKO
ENPLEGUAREN BILAKAERA
(Hazkunde-tasak 2012-2014 eta 2014-2016 biurtekoetan)



a.1.- ZERBITZU SEKTOREA

Euskal Ekonomiaren tertziarizazioak, 2008¹. urtean hasitako prozesua, 2016. urtean ere enplegu gehien batzen duen sektore gisa kokatzen du; zehazki, sektoreak 2016. urtean 29.973 urtekotutako enplegu ditu, Gizarte Ekonomiaren enpleguaren %52,6a izanik.

¹ 2008a izan zen zerbitzu sektoreak (%51,1), historikoki industriak (%46,3) zuen pisua gainditu zuen lehen urtea.

Denboran irakurketa zabalago bat eginez, zerbitzu sektoreak, atzeraldi ekonomikoaren² hasieratik metatzen joan ziren galera garrantzitsu batzuetatik ondorioztatuta, enplegu galera handia bizi izan zuen. Tertiarioko enplegu galera hau, positiboa zen 2012 – 2014 biurtekoan, %3,7ko hazkunde batekin; oraingoan 2014-2016 biurtekoan egiaztatzen datorren joera, %3,3ko hazkunde erritmoaren bidez.


a.2.- INDUSTRIA SEKTOREA

Aurrez aipatu den bezala, industria da euskal gizarte ekonomiaren berreskuratzean sektore dinamikoa; horrela, aurreko 2012-2014 biurteko zifrak 3 aldiz biderkatutako emaitzekin, eta %5,2ko fakturazio mailaren hazkundearekin, industria ehunak enplegu terminotan +%6,0 haztea lortu du, orain dela hamarkada bat³ ireki zen enplegu galera dinamika etetea lortuz.

Zifra absolutuetan, industriak, 2014 eta 2016 bitartean sortutako 1.433 enplegu lortzearen bidez, 2016an urteotutako 25.240 enplegu ditu, honek euskal gizarte ekonomiaren enpleguaren %44,3a suposatzen du.

%44,3ko industria pisu honek, azken urteetan eman den tertziarizazioa bada ere, eta 2006an industria sektoretik eratorritako 32.350 postuetatik urruti egon arren, agerian jartzen du industria ehunak gizarte ekonomian duen garrantzi erlatiboa, euskal ekonomia taldean (%20,9) duen ordezkapen adierazgarriari dagokionez.

ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETAREN KONPARAKETA, EAEko EKONOMIAN ETA GIZARTE EKONOMIAN 2016 (% bertikalak, eremu bakoitzeko enplegu osoari dagokionez)



Oharra: Konparazio datuak Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat 2016. urteko okupazioaren batez bestekoa

Gizarte ekonomiaren tertiarioko enpleguaren garrantzi erlatiboa (%52,6), euskal ekonomian zerbitzu sektoreak duen biztanleria okupatutako ordezkaritza baino beherago uzten duen errealitate sektoriala (%72,8).

² 2010-2012 biurtekoan tertiarioko enpleguaren %10,3ko galeran zehazten zen atzeraldia; hazkundeko bi urte jarraien ondoren sortutako enplegu galera, 2006-2008 bitartean +%5,5, 2008-2010 bitartean +%2,7ra uzkuertzen zen hazkundera.

³ 2006 – 2008: -%7,5, 2008 – 2010: -%11,4, 2010 - 2012: -%3,0 eta 2012 – 2014: -%7,5

a.3.- GAINERAKO SEKTOREAK

Bere aldetik, eraikuntza sektoreak %1,25eko erritmo lasaian hazten ari da, 2016an 1.619 enplegu sortuz. Lehen sektorea, dimentsio sozioekonomiko apalagoa duenak, 2016an urtekotutako 186 enplegu erregistratu zituen, %8,8ko hazkundera 2014ari dagokionez.

b) LURRALDE ETA ESKUALDE IRAKURKETA

Hiru lurralde historikoek hazkundera bizi dute enplegu mailan. Zentzu honetan, nabarmengarria da Gipuzkoak enpresa ehunean bizi izandako berreskuratzea; 2016an 29.537 enplegurekin; 2014ari dagokionez +%6,6 hazten den lurraldea; gipuzkoar industriaren kasuan %7,7raino igotzen den hazkundera.

Bizkaia, 2016an 21.807 enplegu dituen, enpleguaren %2,3ko hazkundera adierazten du; eta Arabako lurraldeak, 5.674 enplegu eskasekin, 2014ari dagokionez zifrak %1,8ko okupaziora igotzen ditu.

GIZARTE EKONOMIAREN ENPLEGUEN LURRALDE BANAKETA 2014 eta 2016
(zifra absolutuan eta % bertikalak)

	2014		2016		%Δ16/14 (1)
	Z.a.	% ber.	Z.a.	% ber.	
Araba	5.571	10,2	5.674	10,0	1,8
Bizkaia	21.312	39,0	21.807	38,2	2,3
Gipuzkoa	27.699	50,7	29.537	51,8	6,6
GUZTIRA	54.582	100,0	57.018	100,0	4,5


(1) Zifra absolutuek erregistratutako hazkunde portzentuala

Pisu erlatibo terminotan, gipuzkoar eskualdeak konparaziozko bilakaera hobea frogatzen du. Bertan gipuzkoar okupatutako biztanleriaren gaineko gizarte Ekonomiaren enpleguaren pisua %9,8raino igotzen da -2014an markatutako %9,2tik-. Lerro honetan, Bizkaia eta Arabako pisu erlatiboak askoz maila apalagoan kokatzen dira, %4,7 eta %4,2an hurrenez hurren.

Enplegu arlo desberdinen gainean begirada jarritz, bere adierazpen mailarik altuena Gipuzkoako Deba Garaiko eskualdean aurkitzen da. Bertan, gizarte ekonomiak sortutako enpleguaren %46a irudikatzen duelarik.

Garrantzi gutxiagorekin, baina baita ere nabarmengarria, Tolosa-Goierri eskualdea (%11,1) eta Bizkaiko Durangaldea (%10,8) eta Bizkaiko Kosta (%8,7). Deba Behean ratio hau euskal batz bestekoaren gainetik kokatzen da (%7,2), gainerako eskualdeetan batz bestekoaren azpitik kokatuz, Eskuinaldean eta Donostialdean (%5,2), Gasteizen (%4,3), Aiaran (%3,3), Bilbon (%3,0) eta Ezkerraldean (%2,6).

EAEKO EKONOMIAN GIZARTE EKONOMIAREN ENPLEGUAREN PISU ERLATIBOA LURRALDE HISTORIKO ETA ESKUALDEEN ARABERA 2016 (EAEko guztizko enpleguaren %)



c) FORMA JURIDIKOAREN ARABERA KO IRAKURKETA

Kooperatiba ehunak, gizarte ekonomiako enpleguaren hazkundera bultzatzen du; izan ere, egindako 2.561 enplegu garbier ekarpena, Gizarte Ekonomian erregistratutakoa baino altuagoa da (+2.436 enplegu).

Gizarte Ekonomiaren enpleguaren hazkundera, kooperatiben arteko bilakaera positiboak markatu du (+%5,4 aurreko 2012-2014 biurtekoaren -%1,4aren aurrean). Horrela, forma juridiko honek 2016an urtekotutako 2.561 enplegutik kuantifikatzen zen, sortutako enplegu garbier kitapen positiboa aurkezten du.

Erantzukizun mugatutako lan sozietateek osatutako enpresa ehunak (L.S.M.), 206 enplegu garbier sorkuntzarekin laguntzen diote +%5,0eko hazkundera eta jada aurreko 2012-2014 biurtekoan espermentatutako errekupeazioari jarraipena ematen dion dinamikan (+%6,8).

Lan sozietate anonimoek (L.S.A.) enplegua galtzen jarraitzen dute (-%10,4); jaitiera gogorra, positiboan aurreko biurtekoan erregistratutakoa baino motelagoa (-%20,7), baina, 2016an 2.848 enplegurekin, L.S.Ak joera ebolutibo historikoa egiaztatzen du, 2008 urteko, krisia baino lehenago, zituen 7.451 enpleguretik oso urrun.

2014-2016an GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEK IZANDAKO BILAKAERA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2014-2016 (zifra absolutuak eta % bertikalak)

	2014		2016		%Δ16/14 (1)
	Z.a.	% ber.	Z.a.	% ber.	
Kooperatibak	47.322	86,7	49.883	87,5	5,4
LS sozietateak	7.259	13,3	7.136	12,5	-1,7
L.S.A.	3.177	5,8	2.848	5,0	-10,4
L.S.M.	4.082	7,5	4.288	7,5	5,0
GUZTIRA	54.582	100,0	57.018	100,0	4,5

(1) Kopuru absolutuek erregistratutako hazkundera, ehunekoetan adierazita

d) KONTRATU MOTAREN ARABERAKO IRAKURKETA

Soldatapeko taldea, 20.500 enplegutik gertu dagoena, 2012 eta 2014an hasitako hazkunde dinamikan (+%9,6), bere berreskurapenarekin jarraitzen du, era nabarmengarrian %12,8ko hazkundearekin, honek 2014-2016 biurtekoan erregistratutako enplegu garbiaren hazkundearen %96a azaltzen du eta 2010 urteko zifren parean kokatzen da⁴.

Tipologiaren arabera, soldatapeko taldearen artean, soldatapeko enplegu finkoaren arteko berreskuratze positiboa nabarmentzen da, %19,2ko erritmoan haziz; aurreko 2012-2014 biurtekoko baina altuagoa den hazkunde garrantzitsua (+%11,4), eta %26,5era igotzen dena soldatapeko finko kooperatibisten artean.

Horrela, 2016. Urtean guztizko talde finkoak (urtekotutako 10.651 enplegu finko) aldi baterako taldea baino talde handiagoa osatzen du (urtekotutako 9.839 aldi baterako enplegu). Kooperatiba errealitatean, bi tipologiek, finkoak eta aldi batekoak, 2016. urtean zifra parekagarriak dira (8.812 finko eta 8.678 aldi batekoak).

Bere aldetik, sozietate taldeak (36.529), neurri handi baten kooperatiba enpresa ehunean erakarria (%88,7), 2014 urteko maila antzekoan dago, %0,3ko aldaketa txiki batekin; oso neurrizko hazkundera kooperatiben kasuan, %1 (32.393 bazkide 2016an) eta +%0,9ko hazkundera L.S.M.etan (2.662 bazkide 2016an).

L.S.A.en artean enplegua (1.474 bazkide 2016an) %13,9an jaitsi da, metatutako galera dinamikan, non 2012-2014 biurtekoan -%28,3 galtzen zuen.

Hau guztiarekin, sozietate enpleguak, 36.529 bazkide langilerekin 2016an, gizarte ekonomiaren enpleguaren %64,1a erakartzen du, eta talde gehiengo duena da.

⁴ Soldatapeko taldea 2016an: 20.490; Soldatapeko taldea 2010an: 20.550

ENPLEGU BANAKETA FORMA JURIDIKOAREN ETA KONTRATU MOTAREN ARABERA EAeko GIZARTE
EKONOMIAN 2006 – 2016 (zifra absolutuak)

	Bazkideak	Soldatapekoak	Finkoak	Aldi batekoak
KOOP.				
2006	34.484	15.276	4.976	10.300
2008	34.697	15.662	6.547	9.115
2010	33.895	14.197	8.256	5.941
2012	34.241	13.703	6.252	7.451
2014	32.071	15.251	6.965	8.286
2016	32.393	17.490	8.812	8.678
L.S.ak				
2006	7.148	6.165	2.883	3.282
2008	7.161	5.096	3.359	1.737
2010	5.471	6.353	3.985	2.368
2012	5.001	2.865	1.767	1.098
2014	4.351	2.908	1.965	943
2016	4.136	3.000	1.839	1.161
L.S.A.				
2006	4.144	4.094	1.969	2.125
2008	4.441	3.010	2.287	723
2010	2.592	4.828	3.060	1.768
2012	2.387	1.638	1.096	542
2014	1.712	1.465	1.016	449
2016	1.474	1.374	896	478
L.S.M.				
2006	3.004	2.071	914	1.157
2008	2.720	2.086	1.072	1.014
2010	2.879	1.525	925	600
2012	2.614	1.227	671	556
2014	2.639	1.443	949	494
2016	2.662	1.626	943	683
GUZTIRA				
2006	41.632	21.441	7.859	13.582
2008	41.858	20.758	9.906	10.852
2010	39.366	20.550	12.241	8.309
2012	39.242	16.568	8.019	8.549
2014	36.422	18.159	8.930	9.229
2016	36.529	20.490	10.651	9.839

e) ENPRESA TAMAINAREN ARABERA KO IRAKURKETA

Enpleguaren hazkunde zati handia (%76), Gizarte Ekonomiako enpresa handietan kontzentratzen da (> 200 enplegu); hala ere, mikroenpresak (< 5 enplegu) establezimendu terminotan hazi arren (+%14,5), enplegu zifrak mantentzen dituzte.

Enpleguaren bilakaeran bizi izandako dinamika positiboa, gizarte ekonomiako enpresa handien artean produzitutako enpleguaren berreskurapenarekin lotzen da neurri handi batean. 500 enplegu baino gehiagoko enpresek zehazki, zeinek aurreko biurtekoan enpleguaren -%4,8 galdu zuten, oraingo biurtekoan +%5,5 haztea lortu dute. Lerro honetan, enpleguaren erreperazioa 50 enplegu baino gehiagoko enpresa taldera bideratzen da.

Hala ere, 50 enplegu baino gutxiagoko enpresa ehuna, establezimendu kopurua %10ean hazi arren, okupazio zifrak 2014ko mailatan mantentzen dira.

Izatekotan, 16tik 50 bitarteko ETEen artean, zeinek 2014 eta 2016bitartean -%0,9a galdu duten, 2012-2014 biurtekoan enpresa ehun honek izandako enplegu galera garrantzitsua kontutan hartzen bada (-%10,7), irakurketa ebolutibo positiboa mereziko luke.



ENPLEGU KOPURUAREN BILAKAERA GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA
2014-2016

	Enpleguak 2014	Enpleguak 2016	Bilakaera 2014 - 2016
5 enplegu arte	4.208	4.193	-%0,4
6tik 15era	4.421	4.499	%1,8
16tik 50era	5.929	5.875	-%0,9
51tik 100era	5.844	6.176	%5,7
101etik 200era	6.227	6.466	%3,8
201etik 500era	7.345	8.071	%9,9
500 enplegutik gora	20.608	21.737	%5,5
GUZTIRA	54.582	57.018	%4,5

KOOPERATIBA ESTABLEZIMENDU KOPURUAREN BILAKAERA TAMAINAREN ARABERA 2014-2016

	Establezimenduak 2014	Establezimenduak 2016	Bilakaera 2014 - 2016
5 enplegu arte	943	1.080	14,5
6tik 15era	304	303	-0,3
16tik 50era	167	172	3,0
51tik 100era	101	107	5,9
101etik 200era	63	69	9,5
201etik 500era	129	137	6,2
500 enplegutik gora	526	510	-3,0
GUZTIRA	2.233	2.378	6,5

Guzti honekin, joera aldaketa positibo honek, ia hamar urteko gizarte ekonomiaren enplegu zifren jaitsiera bizi ondoren, erronka handiei aurre egin behar dio krisi aurretik izandako mailetara iristeko.

2014-2016 biurteko honetan bizi izandako berreskurapenak, azken urteetan metatutako ibilbidearentzat pizgarria suposatu du. Hala ere, efektu positibo hau testuinguruan jarri behar da:

- 2016ko urteko enplegu zifra (57.018 enplegu) 2010 (59.915), 2008 (62.615) eta 2006 (63.480) urteetan erregistratutako enplegu zifrak baino beherago kokatzen da; azken urte honek 1994an hasitako gizarte ekonomiaren denboran erregistratutako kopuru altuena irudikatzen zuen.
- 2014-2016ko bilakaera teorikoa %4,5ean kokatzen den arren, enpleguaren berreskurapen efektiboa %3,4an⁵ kokatzen da. Horrela, industria sektorean, %6ko bilakaera teorikoa %3,4ko hazkunde erreal edo efektiboarekin bat dator; hazkunde hau, zerbitzu sektorean begietsitakoak bezalakoa litzateke (+%3,3). Izatekotan, industriaren %3,4ko hazkunde efektiboak, euskal ekonomian erregistratutako industria enpleguaren bilakaera baino altuagoa izaten jarraituko zuen, -%0,32.

⁵ Fagor Electrodomésticos-en efektua deskontatuz ateratzen den bilakaera; hau 2014ko ekitaldian konkurtso prozesuan aurkitzen zen, fakturazio gabe eta enplegu erregulazioan. Hala ere, 2016an Udalaiz S. Coop (2015eko urtarrilean eratutako enpresa) moduan azaltzen da, eta ondorioz desagerrarazitako Fagor Electrodomésticos-eko langileak Grupo MCC zerbitzuetako eta beste industria enpresetan kokatutakoak sartzen ditu


- Azkenik, 2014-2016 prodazitutako enpleguaren hazkundera (+2.436 urtekotutako enplegu) krisi aldi osoan hondatutako enpleguaren %40a baino gutxiago errekeratzea suposatzen du; 2006 urtetik 6.461 enplegu galdu diren enplegu galera jarraiak eman diren aldia.

Ekonomia berreskuratze testuinguruan, euskal gizarte ekonomiako enpresa parkeak handitzen jarraitzen du, 2016an 3.200 enpresa establezimendu izatera iritsiz.

Enpresa ehun honek, salmentak modu eraginkorrean askatzea lortu ez arren, ekonomikoki eraginkorragoa da, eta 2014ari dagokionez emaitzak boskoiztea lortu du.

+%2,1eko enpresa establezimendu berrien irekiera dinamikan, 2014 eta 2016 bitartean 66 establezimenduren kitapen positibo garbia uzten duena-2004 -2006 krisi aurreko biurtekoaren antzeko⁶-, euskal gizarte ekonomia, 2.455 enpresa eta 3.193 establezimendurekin, 1994 hasitako serie historikoan lortutako maximoetara heltzen da.

GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA 1994-2016




Enpresa hauen negozio bolumena (7.800 milioi euro) 2014 urteari dagokionez erritmo motelean hazten da; %1,4an soilik, 2010eko 8.500 milioi euroren eta 2008ko 9.800 milioi euroren azpitik kokatzen duen fakturazio maila.

Sektorialki bilakaera honek desberdintasun nabarmenak ditu; industria sektoreak %5,2ko fakturazio mailako bulkada duen bitartean, zerbitzu sektoreak, %3,7ko beherapenarekin, gizarte ekonomiaren hazkundera islatzen du. 2014ari dagokionez, eraikuntza sektoreak eta lehen sektoreak %12ko hazkundera izan dute.

⁶ +%2,1 eta 64 establezimenduko kitapen positiboa

EAEKO FAKTURAZIOAREN BILAKAERA GIZARTE EKONOMIAN 2006-2016
(MILA EUROTAN)



Azken biurteko honetan bizi izandako neurrizko hazkundearen gorabeheran, lortutako emaitzen zifrak, 507 miloi eurotako irabazi orokorretan kuantifikatuak, oso positiboak dira eta 2006an bizi izandakora gerturatzen diren irabaziak dira.


2016ko ekitaldian, euskal industria sektoreak, 267 miloi euroko irabaziekin 2014an lortutako irabaziak hirukoizten ditu eta 2012koak bikoiztu (113,4 miloi euro).

Beste alde batetik, 2016 ekitaldi ekonomikoko irabazi orokorren beste erdia, 222 miloi euro, azken urteetan zerbitzu sektoreak metatutako galeren amaiera eta berreskurapenak arrazoitzen dute (2012: -28 miloi euro 2014: -7,81 miloi euro).

Eraikuntzak, 2014an zenbaki gorritan egotetik, balio positiboetara bilakatu da 2016an, 16,1 miloi euroren baliokide.

Sortutako cash flow-mailara egiten duena, 954,1 miloi euro guztira, 2010 urteko maila berdinerara iristen da.

GIZARTE EKONOMIAREN EMAITZA EKONOMIKOEN (MOZKINAK) ETA CASH FLOWaren BILAKAERA
2002-2016 (zifra absolutuak euro kopurua, milakoan)⁷



⁷ 2008 eta 2010 ekitaldiei lotutako emaitza partida eta Cash Flowa, 2012 ekitaldian izandako partida bereziengatik aldatuta geratzen dira (67, 69 eta 63 Kontuak) 2008 ekitaldiraino atzeraeraginezko ondorioarekin aldizkatzen dira.

Kontabilitate mozkin hauen berreskuratze garrantzitsuak, honakoa baimendu du:

- **Gizarte Ekonomiak sortutako BEGaren %11,3ko hazkundeak, euskal BPGaren berreskurapenaren maila altuagotan kokatuz (+%7,1)**
- **Soldata masaren %7,4ko hazkundeak; okupazio mailetan erregistratutako hazkundeak baino altuagoa den proportzioa (+%4,5)**

2016an gizarte ekonomiak 2.911 miloi euroko BEGa sortzen du, horietatik....

- Forma juridikoagatik, %90,5a kooperatiba enpresa ehunarekin lotzen da eta gainerakoa L.S.A (%4,8) eta L.S.M. (%4,7) ekin lotzen da
- Sektorialki, BEGaren erdia baino piska bat gehiago industria sektorearekin lotzen da (%51,2) eta %46,4a zerbitzu sektorearekin.

Ebolutiboki, aurreko 2012-2014 biurtekoan erregistratutako %1,1 galeraren ondoren, BEGa egungo biurtekoan berreskuratzen da (+%11,3). Errekuperazio hau gainera sektore ekonomikoetara eramaten da:

- +%11,7 industrian, aurreko biurtekoan -%2,1eko BEGa galtzen duen sektorea
- +%10 zerbitzutan, 2012-2014an +%0,6 hazten zen sektorea
- Eta +%33,7a eraikuntzan, aurreko biurtekoan -%15eko BEGa galtzen zuen sektorea.

BEGaren ARLOZ ARLOKO HAZKUNDEA 2014-2016 epean (ohiko prezioak eta %)

Sektoreak	Hazkunde tasa
Lehen sektorea	%20,7
Industria	%11,7
Eraikuntza	%33,7
Zerbitzuak	%10,0
GUZTIRA	%11,3

BEG terminotan izandako dinamika positibo hau, enplegu mailetan hazkunde txikiagoa izanik (+%4,5), itxurazko produktibitateko ratioak %6,6an igotzea lagundu du (2012-2014 biurtekoaren +%1,2aren aurrea). Zifra absolutuetan enpleguaren itxurazko produktibitateak 2016an 51.000 enpleguak gainditu ditu.

Enpleguen araberako itxurazko produktibitatearen hazkunde hau sektore desberdinetan ematen da;

- Industria sektorean, itxurazko produktibitate terminotan +%5,3an hazten da, 2010-2012 eta 2012-2014 aurreko biurtekoetan markatutako atzeraldiei buelta emanez: 2010-2012 -%6,1 eta 2012-2014: -%2,1. Industriak, historikoki enpleguaren produktibitate ratio sektorial handiena duenak, 2016an 59.038 euro enpleguko ratioa lortzen du.

- Zerbitzu sektorea bezala, itxurazko produktibitate ratioarekin, aurreko 2012-2014 biurtekoan bizi izandako +%0,6ko igoerarekin, %6,5ean hazten da, eta 2016an tertziarioko enpleguak 45.000 euroko maila baino gorago kokatzen da.

GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO SELTOREEN PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIAREN
BILAKAERA 2014-2016. (BEG euroak/enplegatua. Ohiko prezioak)

	2014	2016	2014 – 2016 aldakuntza
Industria	56.049	59.038	+%5,3
Zerbitzuak	42.308	45.053	+%6,5
GUZTIRA	47.912	51.066	+%6,6

Gizarte ekonomiako BEGak bizi izan duen bilakaera onena (%11,3), euskal ekonomian lerrokatutako martxa onarekin erlazioan, 2014-2016 bitartean BPGaren %7,1eko hazkundearekin gauzatzen dena, euskal BPGari gizarte ekonomiaren ekarpen mailan hobekuntza aurkeztzen du. Zifretan, ekarpen hau 2014ko %4,3tik 2016ko %4,6ra pasatzen da. Partaidetza honek, guztiarekin, ez du 2010. urtean gizarte ekonomiatik mantentzen zen %4,8ko pisua berreskuratzen.

Sektorialki, euskal ekonomiari buruzko errepresentazioaren bilakaera hau, industria nabariagoa izan da ikuspegi industrialean; horrela industria, 2014ko %9,3ko errepresentazio sektorialetik, 2016ko %9,3ra igo da. Hala ere, aipatu behar da, aurreko urteetako errepresentazioak, zehazki 2012 eta 2010, %10etik gertukoak altuagoak zirela.

Zerbitzu sektoreak aldiz, euskal tertziarioko BPGak %3,1a irudikatzen du eta eraikuntzak %1,8a.

GIZARTE EKONOMIAREN PARTE HARTZEA ARLOZ ARLOKO BARNE PRODUKTU GORDINEAN. 2014-
2016ko KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA

	2014	2016
Industria	9,3	9,7
Eraikuntza	1,3	1,8
Zerbitzuak	2,9	3,1
GUZTIRA	4,3	4,6

Konparaziorako iturria: Kontu Ekonomikoak, 2016 Eustat

Gizarte Ekonomiaren esportazioak 2014- 2016 artean %3,5 hazi dira, hurrengo puntuak baino altuagoak diren hankuntzak;

- **Gizarte Ekonomiaren fakturazio orokorrarenak baino (+%1,4)**
- **Euskal esportazio taldearenak baino, 2014-2016an -%2,9ko uzkurdua izan dutenak⁸.**


Horrela, 2016ko esportazioak, Gizarte Ekonomiaren salmenta orokorren %35a suposatzen dute.

⁸ Iturria: EUSTAT. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Gizarte ekonomiako esportazioen bolumena, 2.746.561.140 euro, 2014ko bolumenari dagokionez %3,5ean hazi da. Esportazio bolumen honek, salmenten parte hartzea 2016. urtean fakturatutako euroei dagokionez, %35,2ko ratioan kokatzen da, ratio honek:

- Geografikoki, hurrengo eskualdeetan fakturatutako euro guztizkoaren erdia baino gehiagora igotzen da: Deba Garaia: %58,6, Tolosa – Goierri: %55,4, Bizkaia – Kosta: %54,7 eta Deba Behea: %50,2.
- Termino ebolutiboetan, 2016ko ratioak 2014ko %34,5eko ratioari dagokionez 0,7 p.p.eko igoera bakarrik suposatu du. Bilakaera hau 2012-2014an bizi izandakoa baino baxuagoa da, ratioa 2,2 p.p. hazten zen aldia. Hala ere, aipatu behar da, 2012-2014 aurreko aldiko esportazioen pisuaren hazkuntza, fakturazio orokorraren mailan izandako jaitsiera garrantzitsuaren ondorioz eman zela, %7,1ekoa, eta ez zen esportazioen hazkuntza nabarmengarriagatik sortu, gainera aldi honetan %0,7ko jaitsiera izan zuten.

KANPOKO MERKATUETARAKO IREKITZE MAILAREN BILAKAERA (esportazioen bolumena fakturazio osoaren gainean) 1994-2016



Horrela, esportazio profildun enpresen fakturazio mailaren gaineko kanpo merkatuetan salmenten protagonismoa %62,9ra igotzen da 2016an; hau da, bokazio esportatzaileko enpresan salmenten %63 inguru, profil esportatzaileko gizarte ekonomiaren enpresen aldetik negoziatutako bolumenaren %56a fakturatzeko dutenak, euskal eta estatuko mugetatik kanpo egiten dira.

Esportazio hauek, euskal esportazioak baino gehiago hazi dira, hauek %2,9 murriztu dira biurteko honetan, eta 2016an euskal esportazioen %13a irudikatzen dute⁹.

⁹ 2016an euskal ekonomiak esportatutako 21.596 milioi euroei lotuta Gizarte Ekonomiaren esportazioen 2.746 milioi euro. Iturria: EUSTAT. Kanpo merkataritza estatistikak (KAMEE)

Norako geografikoaren arabera, europar salmentak goranzko bidean jarraitzen dute, naiz eta aurrekoa baino erritmo txikiagoarekin; Amerikako merkatuek dinamismo handiagoa islatzen dute, eta Asiako merkatuak ahuldu egin dira.

Europako merkatuek, esportazioen %63a baino zerbait gehiago erakartzen dute, aurreko biurtekoetakoa baino errito txikiagoan izan arren¹⁰, goranzko ibilbidea duten %2,7ko hazkundean kokatzen dena.

Hala ere, esportazio estatubatuarrak dira, 2014 – 2016 bitartean hazkunde garrantzitsuena dutenak, %12tik gertu. Horrela, 2010etik¹¹ finkatutako dinamika ebolutibo hazkorrean, 2016. urtean esportazio estatubatuarrak, gizarte ekonomiaren esportazioen %8a irudikatzen dute.

Bere aldetik, Asiako merkatuak, esportazio guztien %14ko pisuarekin, azken hamarkadan, Europako merkatuetatik urrun izan arren, esportazio norakoen bigarren postuan kokatzen dira.

Hala ere, termino ebolutiboetan, Asiako norakoa da 2014 -2016 biurtekoan uzkuertzen den merkatu bakarra (-%3,9). Atzera egite honek, aurreko 2012 -2014 aldian izandako jaitsierari (-%9) jarraipena ematen dio.

Azkenik, Latinoamerikako merkatuetan salmentak, %9,1 hazten dira, 2016an estatu batuetako merkatuek lortzen duten esportazio bolumenera hurbilduz (232 miloi euro eta 226 miloi euro hurrenez hurren).

ESPORTAZIOEN BOLUMENA, ZONAREN ETA BILAKAERAREN ARABERA. 2010, 2012, 2014 eta 2016

	Z.a. 2010	Z.a. 2012	Z.a. 2014	Z.a. 2016	%Δ12/10	%Δ14/12	%Δ16/14
Europa	1.397.054.639	1.588.386.617	1.695.499.875	1.740.433.777	13,7	6,7	2,7
Asia	370.036.555	440.345.111	400.880.770	385.066.395	19	-9	-3,9
AEB	148.965.042	193.840.989	202.273.272	226.195.329	30,1	4,4	11,8
Hegoaldeko Amerika	210.994.736	295.090.191	212.963.623	232.293.656	39,9	-27,8	9,1
Beste batzuk	123.433.888	155.592.307	141.853.065	162.571.983	26,1	-8,8	14,6
GUZTIRA	2.250.484.862	2.673.255.215	2.653.470.604	2.746.561.140	18,8	-0,7	3,5

Salmenten bilakaerak, enpresek profil esportatzaile edo esportatzaile ez direnen portaera islatzen dute; bere salmentak nazioarteko bihurtu dituen enpresa-ehunarentzat aldekoagoa den bilakaera.

Horrela, enpresa esportatzaileek 2016an 2014an saldutakoa baino %7,4 gehiago saltzen dute, eta etxeko merkatuan saltzen duten enpresek, 2012-2014ko biurtekoan gertatutakoaren antzera, fakturazioaren %5a baino zertxobait gehiago galtzen dute.

¹⁰ 2010-2012 biurtekoan europar esportazioak %13,7 hazten ziren eta 2012 -2014 biurtekoan %6,7.

¹¹ 2010: %6,6; 2012: %7,3; 2014: %7,6

Enpresa esportatzaileen artean, barruko merkatuetako salmentetan izandako errekurazio garrantzitsua (+%14,6) nabarmendu behar da, 2012 -2014 aurreko biurtekoan mota honetako enpresek izandako jaitsiera garrantzitsuarekin desberdina izanik (-%21,5).

BARNE SALMENTEN VS. KANPO SALMENTEN BILAKAERA 2014-2016

	2014	2016	%Δ16/14	a.e. Δ16/14
Fakturazio osoa	7.690.772.395	7.799.506.071	1,4	108.733.676
Esportatzen ez dutenen fakturazioa	3.621.137.910	3.430.505.877	-5,3	-190.632.033
Esportatzaileen fakturazioa	4.069.634.485	4.369.000.194	7,4	299.365.709
a) Barne-salmentak	1.416.163.881	1.622.439.054	14,6	206.275.173
b) Kanpo-salmentak: Esportazioak	2.653.470.604	2.746.561.140	3,5	93.090.536
b.1. Europarako esportazioak	1.695.499.875	1.740.433.777	2,7	44.933.902
b.2. Esportazioak gainerako herrialdeetara	957.970.729	1.006.127.363	5,0	48.156.634

Enpresa motaren arabera neurri handi batean honako puntueta lotzen den esportatzaile taldea:

- *Dimentsio handieneko enpresara*: esportazioen %89a baino gehiago, 100 enplegu baino gehiago dituzten enpresen artean kontzentratzen da.
- *Kooperatibak*: esportazioen %95,4a kooperatiba ehunak buru dira.
- *Gipuzkoako enpresa ehuna*: esportazioen %68,2a gipuzkoar enpresen salmentei dagokie, Bizkaiakoei %25,7a eta Arabakoei %6,1aren aurrean.

Finantzaketari dagokionez garbiagoa dirudien enpresa ehuna, modu adierazgarrian industria sektorean; eta aurreko urteetan saihestutako ahalegin inbertitzailea berreskuratzen du.

Gizarte ekonomiaren funts propioen maila %3,2 hazten da 2014. urtean, 2016. urterako 5.811 miloi euroko balioa eta funts propioen %8,7ko errentagarritasunean kokatuz. Sektoreen arabera, errentagarritasun hau, industria ehunaren artean %10,8ko ratoraino igotzen da, eta ebolutiboki 2014. urteko %1,6ko errentagarritasuna baino altuagoa da.

Gainera, errealitate finantzario honek, 2016an zorpetze ratio (1,0) eta berme ratio (2,0) egokiak erakusten ditu.

Egoera finantzarioaren hobekuntza hau, neurri handi batean, industria baliabide propioen hazkuntzaren bidez azaltzen da, %22,3an haziz, eta aurreko biurtekoan bizi izandako %13ko galera errekuratuz. Zerbitzu sektoreak bere aldetik, bere funts propioak uzurtzen ditu, baina 2014ko - %0,2ari dagokionez, %7an bere errentagarritasuna hobetuz.



GIZARTE EKONOMIAREN FUNTS PROPIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA 2014 eta 2016 (zifra absolutuak euro kopurua milakoan, %bertikalak)

	2014		2016	
	Euroak	% ber.	Euroak	% ber.
Lehen sektorea	7.002.011	0,1	6.692.783	0,1
Industria	2.113.335.260	37,5	2.586.547.395	44,5
Eraikuntza	43.177.268	0,8	36.893.180	0,6
Zerbitzuak	3.465.415.915	61,6	3.181.242.302	54,7
GUZTIRA	5.628.930.454	100,0	5.811.375.660	100,0

GIZARTE EKONOMIAREN FUNTS PROPIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA. FUNTS PROPIOEN GAINEKO ERRENTAGARRITASUNARI BURUZKO ERREFERENTZIA (zifra absolutuak euro -kopurua milakoan) 2016

	Funts propioak	Errentagarritasuna / Funts propioak	
		2014	2016
Industria ⁽¹⁾	2.623.440.575	4,6	10,8
Zerbitzuak	3.181.242.302	-0,2	7,0
GUZTIRA	5.811.375.660	1,6	8,7

⁽¹⁾ Eraikuntza barne

Inbertsio kapituluari dagokionez, 2015 eta 2016an egindako esfortzu inbertitzaileak, 317 miloi eurori gerturatzen zaizkion eurotan gauzatzen da, horietatik %87a ibilgetu materialen inbertsioei dagokie, eta inbertsioen %70a industria sektoreari.

Izan ere, 2010eko industriako inbertsio mailak, 2014an erregistratutako mailak, ia %41 gaintitzen ditu; Bitartean, zerbitzu sektoreak, inbertitutako 92 miloi eurekin, inbertsio maila -%7,9an murrizten du, funts propioen uzkuorduren pare (-%8,2).

Orokorrean, 2015 eta 2016 bitartean egindako inbertsio mailaren hazkundeak, 2016 eta 2014 bitartean egindako inbertsioak %22,4an haztea suposatu du.

GIZARTE EKONOMIAREN INBERTSIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA (Materiala + Immateriala) 2014 eta 2016 (zifra absolutuak eta % bertikalak)

	2014	2016	Bilakaera 2014 - 2016
	Euro	Euro	
Industria	157.031.158	221.043.838	40,8
Zerbitzuak	100.300.605	92.376.675	-7,9
GUZTIRA	258.839.030	316.899.378	22,4

II.- ZIFRA SOZIOEKONOMIKO HANDIEN AURRERAPENA 2017 (GEFK)


2017an, 2014-2016an hasitako enpleguaren berreskurapenak pareko erritmoan (+%2,5) jarraitzen du.

Gainera, urte honetako fakturazio zifretan bulkada handiagoa antzematen da, urtetik urterako %4ko erritmoan haziz, industria salmentak izandako aurrerapen garrantzitsuak lagunduta (+%6,55).

2017. urterako aurreikuten den enplegua, 58.444 enplegutik kokatzen da, 2014 -2016 biurtekoan hasitako %4,5eko hazkundeari jarraitasuna emanez -urtetik urterako %2,25 hazkundearen pare-, eta 2016 – 2017 bitartean urtetik urterako %2,5eko hazkundera markatuz.


Joera aldaketa positibo honek, 2014 -2017 aldian enpleguaren errekupeazioa izango zuen, 2008an desagertutako enpleguen erdira gerturatuz (%48). Hala ere, 2017ko enplegu maila, 2010. urteko 60.000 enpleguen, 2008ko 62.615 enpleguen eta 2006ko 63.480 enpleguen azpitik kokatzen da oraindik.

GIZARTE EKONOMIAN EAEⁿ ENPLEGUAREN BILAKAERA 1994-2017



2014 -2016 bitartean %1,4ko fakturazio terminotan bizi izandako gorakada arina, 2017a, %3,97ko gorantza garrantzitsuak bultzatua ikusten da. Horrela 2017rako estimatutako 8.109 miloi eurotako fakturazio maila, krisi aurreko 2006 (9.523 miloi euro) eta 2008ko (9.757 miloi euro) mailetara iritsi gabe, 2010 eta 2012an markatutako negozio bolumenetara gerturatzen da.

FAKTURAZIOAREN BILAKAERA 2006 - 2017 (MILA EURO)




Gizarte ekonomiako salmenten erreperazioa, industria salmenten hazkunde garrantzitsuko testuinguruan kokatzen da, 2016 -2017 bitartean %6,55eko urteko erritmoan, -2014 eta 2016an erregistratutako %5,2ko hazkundea gainditzen duen igoera-. Eraikuntza sektorearen ematen diren erritmo motelagoak direnen aurrean (+%2,83), eta zerbitzu sektoreari lotutako salmenten egonkortasunaren aurrean.

Sektorekako analisi lerro honetan, industria salmenten dinamismoak urtetik urterako %3,68ko enpleguaren hazkundea ekarriko luke; 2014 – 2016 bitartean erregistratutakoa baino altuagoa izango zen hazkunde erritmoa, industria okupazioaren urtetik urteroko hazkunde markatzen duen aldia, %3an kokatua.

Zerbitzuek, 2017 bere salmentetan zuen egonkortasun logika batean, 2016 eta 2017 artean %1,88ko hazkundearekin enpleguaren sorkuntzarekin jarraitzen duena. Eraikuntza sektoreak bestalde, enplegua galduko zuen (-%0,86).

Gainera nabarmena da 2016 eta 2017 bitartean erregistratutako fakturazio eta enplegu terminoetan emandako bilakaera, kooperatibetan, enpleguan (+%2,59) eta fakturazioan (+%3,85) hazten direnak, eta lan sozietateetan zabaltzen dena (+%6,28 L.S.A. artean eta +%4,97 L.S.M. artean), hauen salmentetan hazkunde nabarmengarria antzematen da, eta metatutako enplegu galera izandako urteen ondoren, L.S.A.etan lehen hazkunde arina antzematen da %1,27koa. Bere aldetik, L.S.M.ak %2an hazten dira, 2014 – 2016 biurtekoan erregistratutako enplegu joerarekin lerroan.

AURREIKUSITAKO ENPLEGU ETA FAKTURAZIOAREN BILAKAERA
(Lurralde historikoa, jarduera sektorea eta Forma juridikoa) 2016-2017



Lurraldeka, hiru lurralde historikoei fakturazio zifretan aurrera egin dute, 2016 eta 2017 bitartean Gipuzkoa eta Bizkaian %4 inguruko eta Araban %2,63ko hazkunde batean berreskuratzen doazen zifrak. Salmenten gehikuntza hau halaber, hiru lurraldeetako enpleguaren hazkundera islatzen dira, Araban %3,31koa, Gipuzkoan %2,65koa eta Bizkaian %2,13koa zehazki.

III. GIZARTE EKONOMIAKO KUDEAKETA ORGANOETAN KANPOKO GIZARTE HAUTEMATEAREN, LAN INTITUZIONALAREN ETA BARRUKO PARTAIDETZAREN BALIOESPENA (GEFK)

Euskadiko gizarte ekonomiaren ekarpen sozioekonomiko eta rolari dagokionez herritarren hautematea, enpresa ehunetik mugatutzat epaitzen da, , baina enpresa handien artean funski hobetzen da.

Orokorrean galdeketa egin duten 4 enpresetatik batek bakarrik egiaztatzen du euskal gizartearen artean Gizarte Ekonomiaren aldeko hautemate positiboa; enpresen tamainaren arabera bereizitako profila aurkitzen duen iritzia izanik.

Enpresa handien artean, posizioak nabarmenki, optimistagoak dira, 100 enplegu baino gehiago dituzten enpresen erditik gorak, rol diferentzial hau egiaztatzen dute, eta euskal gizarteari eginiko euren ekarpena ezagutzen dute.

ETE txikiek osatutako ehunean ordea, gizarte ekonomiako enpresen %64 inguru ordezkutzen dutenek, eta beraz jarraibideak markatzen dituztenak, hautematea eszeptikoagoa bilakatzen da; horrela, tamaina txikiko kooperatiben eta lan sozietateen %75ak, ez du uste euskal gizarteak gizarte ekonomiaren rol diferentziala nabaritzen dutenik, ezta ere, euskal ekonomiara eginiko ekarpena.

ENPRESA TAMAIAREN ARABERAKO ANALISIA. ENPRESA EHUNAK, EUSKAL BIZTANLERIAREN ALDETIK EHUN SOZIOEKONOMIKOARI GIZARTE EKONOMIAREN EKARPEN ETA ROL BEREIZGARRIAREN HAUTEMATEA 2016 (enpresen %)


	GUZTIRA	5 enpleguraino	6tik 15 arte	16tik 50 arte	51tik 100 arte	101etik 200 arte	201etik 500 arte	500 enplegu baino gehiago
Rol diferentziala	26,1	24,0	23,4	34,6	37,7	54,3	60,4	63,2
Ekarpen nahikoa	26,4	25,1	24,2	26,7	35,4	58,3	31,7	75,4

Gizarte ekonomia ikusgai bihurtzera orientatutako lan instituzionalaren balioespena aldekoagoa da, eta berriro ere tamaina handiko enpresen artean oihartzun handiagoa du.

Euskal gizarte ekonomiaren enpresen 1/3ak, administrazio publikoek eginiko lana egoki edo/eta positibo moduan kalifikatzen dute. Hala ere, aipatu behar da %41ak baino gehiagok ekarpenik egiten ez duela edota zentzu honetako jarrerarik hartzen ez duela aipatzen du.

Rol instituzional honen balioespenak, halaber, dimentsio handieneko enpresen artean, esangura handiagoa lortzen du; hortaz, 100 enplegu baino gehiagoko enpresen artean, sektore publikoak eginiko lana, enpresen %41-%62aren aldetik egoki edo gogobetegarri gisa baloratzen da.

GIZARTE EKONOMIAREN IKUSGARRITASUNERA BIDERATUTAKO GAUR EGUNGO ERAKUNDEEK EGITEN DUTEN LANAREN HAUTEMATEA. ENPRESA TAMAINAREN ARABERAKO ANALISI OROKORRA 2016 (%)




Giza parte hartzea, tresna eraginkor moduan eraiki den Gizarte Ekonomiaren ezaugarri diferentziala da.

Enpresen gehiengo handiak, zehazki, enpresen %80ak baino zertxobait gehiagok, gizarte ekonomiaren formek prestatutako kudeaketa organoetako bazkideen partaidetza, gaur egun, eraginkorra edo egokia dela azaltzen du.

Gainera, lerro honetan, ehun sozialaren %36ak, eta zerbitzu sektoreko enpresen %39ak baino zertxobait gehiagok, partaidetza gogobeteko eran balioesten du; eta %5ak baino ez du organo hauetako bazkideen partaidetza eskasa bezala balioesten¹².

BAZKIDEEN ZUZENDARITZA ORGANO ETA BATZARREAN PARTE HARTZE MAILAREN BALORAZIOA 2016 (%)



¹² Talde honen artean, %22,3ak partaidetza bultzatzeko neurriak landu dituela ziurtatzen du.

IV. GENERO BERDINTASUNA ETA KONTZILIAZIO NEURRIAK GIZARTE EKONOMIAN (GEFK)

Sektorialki, industrian eta gizarte Ekonomiaren zerbitzuetan emakumeen ordezkartza euskal ekonomia orokorrean baino altuagoa da.

Orokorrean, gizarte ekonomiaren enplegatutako emakumezkoen pisua %44,3an kokatzen da, eta okupatutako biztanleriaren gaineko euskal emakumezkoen enpleguarekin konparatuz (%47,3), gizarte ekonomiaren emakumezkoen enplegu maila, euskal batz bestekorena baino 3 puntu beherago kokatuko zen.

Hala ere euskal gizarte ekonomian industria sektoreak duen pisu berezia argitu behar da –zifretan, 2016an, gizarte ekonomiaren enpleguaren %44,3a industria ehunarekin bat zetorren, euskal ekonomian okupatutako biztanleen %20,9aren aurrean-; zerbitzu sektoreari dagokionez, talde maskulinoaren presentzia handiagoa duen enpresa ehuna. Errealitate honek, gizarte ekonomian emakumezkoen irudikapena, okupatutako euskal biztanleriarena baino baxuagoa izatea azaltzen du. Izan ere, gizarte ekonomiaren eta euskal biztanleria okupatuaren arteko enpleguaren sektorekako banaketan desadostasun efektu hau zuzentzen duen doikuntza egin ez gero, euskal gizarte ekonomian emakumezko taldearen irudikapen “egokiagoa” %52,6ra igoko litzateke.

Positiboan, industrian eta baita zerbitzuetan ere, gizarte ekonomiaren emakumezkoen enplegu sektorialaren presentzia, okupatutako euskal biztanleriarena baino altuagoa dela aipatu behar da, horrela:

- Euskal gizarte ekonomian emakumezkoen industria enpleguaren pisua (%22,3), euskal emakumezkoen industria enpleguarena baino altuagoa da (%20,9).
- Euskal gizarte ekonomiaren zerbitzuetan, emakumezkoen enpleguaren ordezkartza, %65 ingururaino igotzen da, euskal ekonomiako tertziarioko enpleguaren %57,8aren aurrean.

GIZARTE EKONOMIAREN JARDUERAREN ARLOZ
ARLOKO BANAKETA, SEXUAREN ARABERA 2016 (%
bertikalak)

	GUZTIRA	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gizonezkoak	55,7	75,3	77,7	90,5	35,2
Emakumezkoak	44,3	24,7	22,3	9,5	64,8
	52,6*				

Iturria: 2016 Gizarte Ekonomiaren estatistika. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia saila

*Euskal enpleguaren Sektorekako banaketara doitutako portzentajea

EAEko EKONOMIAKO JARDUERAREN ARLOZ ARLOKO
BANAKETA, SEXUAREN ARABERA 2106 (% bertikalak)

	GUZTIRA	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gizonezkoak	52,7	72,2	79,1	88,6	42,2
Emakumezkoak	47,3	27,8	20,9	11,4	57,8

Iturria: EINEko Biztanleria aktiboaren inkestatik abiatutako lanketa 2016

Bere aldetik, kooperatiben artean, emakumezkoen pisua (%47,1) euskal enpleguak irudikatzen duenaren antzekoa da (%47,3).

FORMA JURIDIKOAREN ARABERAKO BANAKETAK, SEXUA KONTUAN HARTUTA 2016 (%)
bertikalak)

	GUZTIRA	Kooperatibak	L.S.A. sozietateak	L.S.M. sozietateak
Gizonezkoak	55,7	52,9	81,1	71,1
Emakumezkoak	44,3	47,1	18,9	28,9

Artekaritza kontseilueta eta Gizarte Ekonomiako administrazioan emakumezkoaren partaidetzari dagokionez, duen %29,7aren ordezkartza gaur egun orekatua ez den arren¹³, modu positiboan hurrengo elementuak aipatu behar dira:...

- Ratio hau, aurreko urteko balioei dagokionez, hazten ari da (2010: %24,5 eta 2014: %27,6)
- 2016. Urtean, euskal enpresa ehuneko zuzendaritza-kudeaketa karguetako emakumezkoen partaidetza zifren lerroan dago (%31,8)¹⁴
- Zerbitzu sektorearen kasu partikularrean, partaidetzaren oreka mailarantz gerturatzen (%38,1).

JARDUERA SEKTOREAREN ETA SEXUAREN ARABERAKO BANAKETA, GIZARTE
EKONOMIAREN ZUZENDARITZA KONTSEILUA ETA ADMINISTRAZIOKO KONTSEILUETAN
2016 (%) bertikalak)

	GUZTIRA Kontseilua	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gizonezkoak	70,3	91,4	79,4	92,7	61,9
Emakumezkoak	29,7	8,6	20,6	7,3	38,1

2016ko Gizarte Ekonomiaren Estatistikaren edizio honetan, Kontziliazio neurri eta Berdintasun Planei lotutako galdera modulu berri bat sartzen zen.

Zentzu honetan, errealitate desberdinak aipatu behar dira:

- Enpresen %9,4ak bakarrik dute Berdintasun Plana 2016an; %6,5era jaisten den ehunekoa 5 enplegu baino gutxiago dituzten ETE txikien artean
- 201 enplegu baino gehiago dituzten enpresen artean, erdiek baino gehiagok Berdintasun Planak dituzte, eta 500 enplegu baino gehiago dituzten enpresa ehunaren artean %62ak inguru. Hala ere, lege esparruari dagokionez, 250 enplegu baino gehiago dituzten enpresek, Berdintasun Plana izan beharko zuten jada.¹⁵

BERDINTASUN PLANA DUTEN ENPRESAK. 2016 (%)

	GUZTIRA	5 enpleguraino	6tik 15 arte	16tik 50 arte	51tik 100 arte	101etik 200 arte	201etik 500 arte	500 enplegu baino gehiago
Berdintasun Plana	9,4	6,5	9,1	16,8	12,0	30,2	50,5	61,9

¹³ Orekatua da, gutxienez %40-%60ko banaketa dagoenean

¹⁴ Iturria: INE. Biztanleria aktiboaren galdetgia

¹⁵ Eusko Jaurlaritzak onartutako hurrengo Berdintasun Planak, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoak bezala, enpresen eremuan berdintasuna sustatzeko neurrien garapenak baimendu dituzten esparrua. Martxoak 22ko 3/2007 lege Organikoak, emakume eta gizonen arteko berdintasun efektiborako legeak, 250 langile baino gehiagoko enpresa guztiek berdintasun planak izatearen nahitaezkotasuna ezarri du..


Enpresetan bizitza laborala eta pertsonalaren kontziliazioa errazteko bideratutako neurri zehatzen aplikazioari dagokionez, ordutegi malgua da hedatuena dagoen neurria. Zehazki, gizarte ekonomiako enpresa ehunaren %40 inguruk, 2016an lan malgutasuna ezartzen zuen, eta 100 enplegu baino gehiago dituzten enpresen %75-80ak ezartzen zuen bere errealitatean.

Bestalde, jardunaldi murriztua lau enpresetatik batek bakarrik ezartzen du -urte horretan izandako eskaeren mende dagoen egoera- eta 100 enplegu baino gehiago dituzten enpresen artean neurri oso hedatua da (%83-%100).

Hala ere, hartzaindegi zerbitzuak (%2) edo telelana (%10,2) bezalako kontziliazio neurriak, ez dira horren erabiliak 2016an.

AZKEN BI URTEETAN EZARRITAKO ERANTZUKIZUN SOZIALA KUDEATZEKO KONTZILIAZIO NEURRI
ETA FORMULAK 2016 (%)

	GUZTI RA	5 enplegu ino	6tik 15 arte	16tik 50 arte	51tik 100 arte	101etik 200 arte	201etik 500 arte	500 enplegu baino gehiago
Ordutegi malgua	39,9	35,4	40,5	47,9	60,4	81,4	69,7	75,1
Lanaldi murriztua	24,7	14,9	28,7	45,7	64,2	82,6	88,2	100,0
Telelana	10,2	8,8	8,1	19,5	11,3	31,0	20,6	0
Hartzaindegi zerbitzua	2,0	0,5	0,3	4,6	19,0	28,5	0	0



V. TALENTUAREN KUDEAKETA ENPRESETAN (GEFK)


Talentuaren kudeaketa arazo bihurtzen da 50 enplegu baino gehiago dituzten enpresen erdiarentzat; epe ertainera kezka hazkorra den arazoa.

Enpresen %20,6ak erakunderako, langile kualifikatuen atxikipena edo erakarpena arazo bat dela ziurtatzen dute. Industria sektorean erabakigarriagoa bilakatzen den kezka eta etorkizunean larriagotuko dena; zifretan, kezka hau, enpresen %20,6tik %26ra hedatuko litzateke.

Horrela, 2016. urtean, enpresen %19ak arazoak ditu talentua erakartzeko orduan -epe ertainean %24,3ra igotzen den proportzioa izanik- eta %12,1ak kezka hau erakundearen talentu atxikipenera eramaten du –etorkizun hurbilean %17,4ra igotzen den proportzioa izanik-.

